

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea, S.A. (Surbisa)**

2025-2027 urteetan bilbon Surbisaren eremuan sartutako egoitza eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko eta hobetzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen testu bategina.

Lehena. — Xedea

Oinarri hauen xedea da Udal Osoko Bilkurak Surbisaren ardurapean utzi dituen ku-deaketa eremuetako bereziki egoitza eraikinak eta bertako etxebizitzak birgaitzea eta hobetzea sustatzeko, bai eta euren iriste erraztasuna eta energia eraginkortasuna hobetzeko ere, onartzen eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak lortzeko betekizunak arautzea.

Eremu horiek gaur egun honako hauek dira: Gurutze Auzoko Area Degradatuak, Zazpilanda Etxaldea, Trenbideko Langileen Auzoa, Irala eta Iralako Eremu Historikoa, bai eta Zazpikaleetako Berregokipenerako Egitamu Berezian eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalan eta Uretamendi auzoan eta 2 Barruti-Uribarrin Barne Eraberrikuntza eta Birgaikuntzarako Egitamu Berezian aplikatzekoak diren eremuak ere. Hala ere, kontuan hartuko dira 2 Barruti-Uribarriko balizkorako Xedapen Orokorretan eta Olabeagako Eremu Degradaturako Xedapen Orokorretan jasota egon daitezkeen mugak.

Bigarrena. — Jarduketa babesgarriak

Jarduketa babesgarriak izango dira, Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko garaian, jarduketa ildo batean edo batzuetan sar daitezkeen higiezinaren gaineko esku-hartzeak. Hona hemen horien deskribapenak:

0. Lerroa. — Obra babesturako diru-laguntza zuzena

Baldin-eta birgaitzekoak egoitza erabilera duen eraikin baten elementu komunak edo inguratzailea badira, jabegoari zuzeneko eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntza eman go zaio, birgaitze lanak sustatzen dituen pertsona oro babesteko.

Egikaritzekoa den jarduketa zehatza dela-eta beste laguntza berezitu bat jaso dezaketen jarduketak kanpoan geratzen dira, hala nola, energia efizientzia hobetzeko obrak; baina beren-beregi barruan hartzen dira igogailurik ez duten eraikinetan igogailuak jartzeko diren obrak.

1. Lerroa. — Egoera zaurgarrian dauden familiak

Jarduketa lerro honen bidez, baliabide ekonomiko gutxiago dituzten familiak babestu asmo dira euren eraikin eta etxebizitzetan bizigarritasun baldintzak lortzeko eta hobetzeko birgaitze lan handiak edo txikiak baina atzeraezinak egin behar dituztenean laguntzeko. Zehatzago esanda, lerro honen bidez honako jarduketa hauek babestuko dira:

- Komunitateko obretan (elementu komunak): Jabeez egin beharreko ahalegin ekonomiko handia eskatzen duten esku-hartzeak; hau da, elementu bakoitzeko aurrekontu babesgarria hoge mila eurotik gorakoa (20.000,00€) denean edo etxebizitzaren m² bakoitzeko berrehun eta berrogeita hamar eurotik gorakoa (250,00 €) denean.
- Etxebizitzan eginiko obrak (elementu pribatiboak): Etxebizitzako esku-hartzearen aurrekontu babesgarria mila (1.000€) eurotik gorakoa denean eta hiru mila (3000€) euroak gainditzen ez dituztenean.
- Era berean, jarduketa lerro honek Euskal Autonomi Erkidegoaren aldeko aldeabarako hipoteka edo, hala badagokio, Surbisaren aldekoa -6 Lerroko laguntzak lortuz gero- eratzeko eta Jabetza Erregistroan inskribatzeko kostuak ere babestuko ditu, betiere hipoteka-bermeak 600,00€-ak gainditzen baditu.

**2. Lerroa. — Egitura eta eraikuntza segurtasuna eta egokitzapena**

Jarduketa lerro honen bidez, Honako jarduketa hauei ekiten dieten pertsona eta familiak babestuko dira:

— Komunitateko obretan (elementu komunak):

- Eraikinaren erresistentzia, sendotasuna, tinkotasuna eta egonkortasunarekin eta egitura- eta eraikuntza egokitzapenarekin lotutako obrak.
- Ingurutzalearekin lotutako elementu komunetan eginiko obretako segurtasun jarduketak, elementuen askatzeak, txintxor eta erlaitz erortzeak eta halakoak ekiditeko direnean.
- Sostengu-egituran orokortutako kalteen ondoriozkoak direnak.
- Txarto dauden instalazioei lotutakoak (instalazio elektrikoak, ur fekalen zorroak, osasungarritasunari eragiten dietela eta, e.a).
- Barruan daude unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera ordenatuak izan daitezkeenak edo EITn 1, 2 edo 3. mailan sartuta daudenak (kasu hone-tan, gainera, nahitaezkoak).
- Iriste erraztasuneko esku-hartzeak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen araudiak iriste erraztasun obratzat hartzeko beharrezko betekizunetara iristen ez dire-nean.

— Etxebizitzan eginiko obrak (elementu pribatiboak):

Etxebizitzetan oinarritzko instalazioetan bizigarritasun baldintzak betetzen ez eta esku-hartze berezia behar dutenean eta obretarako tutoretza berezi bat beharrez-koa denean.

Bestalde, gutxieneko bizigarritasun baldintzak hornitu eta hobetzen dituzten jardu-ketak edota konfort egoeran hobekuntza bat dakartenean.

— Adibide gisa, honako jarduketa hauek sartuko dira hemen:

- Trenkada-lanak, bizigarritasun baldintzak betetzen direla bermatzeko.
- Kontserbazio eta bizigarritasun lanak.
- Elektrizitate, igeltserotza, ebakuazio, aireztatze, berotze instalazioak eta abar.
- Isolamendu termikoak eta akustikoak. Bertan sartzen dira kanpoko arotzeria kendu eta energia eraginkortasun hobekoak jartzeko lanak.
- Proiektu teknikoa duten osoko eraberritzeak.

3. Lerroa. — Iriste erraztasuna

Jarduketa lerro honen bidez, Honako jarduketa hauei ekiten dieten pertsona eta fa-miliak babestuko dira:

— Elementu komunei dagokienean:

Eraikina eta beronen ingurua iriste erraztasun baldintzetara egokitzea, bai oztopo arkitektonikoak desagerraraziko dituzten igogailuak jarri edo berriztatuta kaletik sartzeko bidea samurra izan dadin lortzen dutenak, bai kaletiko sarbideak erabe-rrituta, e.a. Berariaz salbuetsita daude eskailera-igogailu zeharren instalazioak.

— Elementu pribatiboei dagokienean:

Iriste erraztasun jarduketatzat hartzen dira adina edo baldintza fisikoak direla-eta etxebizitzetan sustatzen diren iriste erraztasun lanak.

4. Lerroa. — Proiektu bereziak

Proiektu berezitzat hartuko dira eta, beraz, babesteko moduko jarduketak izango dira hauek:

- Beste atari edota eraikinekin batera burutzen diren jarduketak.
- Araudiak iraunarazi edo babesteko elementuei balioa emateko helburua dutenak (hala nola, babestutako eraikinetan zaharberritzen diren begiratokiak; egokiak ez



diren edo bat ez datozen trataerak ordezkatu edo egokitzeak, horma-hobiak zaharberritzeak).

- Ondare-berreskuratzeagatik kontserbazio hutsa baino hobekuntza handiagoa eragiten duteneko lanak (Hiri-irudia hobetzeko jarduketak eta obrak -horma irudi artistikoak barnean hartuta- eta inguru monumentalari egokitzeak)
- Amiantozko elementuak kentzeko lanak.
- Birgaitzeko prozesuan aztarna ekologikoa murrizten dutela egiaztatu eta hondakinen tratamendua modu egokian kudeatzen dituzten proiektuak.
- Fatxada nagusietako kable-sarea kentzeko jarduketak, noiz-eta fatxadetako edo atari eta eskaileretako obrekin batera egikaritzen direnean.
- Erabilera publikoko espazio pribatuen urbanizazio jarduketak.

5. Lerroa. — *Beheko solairuetako merkataritza-lokaletan hiri irudia*

Lerro honen bidez, beheko solairuetako merkataritza lokaletako esku-hartzeak babestuko dira, hots, fatxadak, erakusleihoak eta sarbideak egokitu edota modernizatzeko hobekuntza lanak (bai jarduera martxan, hasten edo erabili gabe dagoenean). Hau da, ohiko mantentze eta kontserbazio lanez harago, lan horiek higiezinaren kanpoko itxura hobetzean izango dute isla. Ondoren, babestekoak diren esku-hartze adibide batzuk zerrendatuko dira:

- Erakusleihoak.
- Errotuluak eta kanpoko beste elementu batzuk.
- Erakusleihoen kanpoko argiztatzea.
- Pertsianak ordezkatzeta.
- Igeltserotza/zurgintza eta pinturako kanpoko lan eta eraberritze txikiak.
- Fatxadaren birmoldatze-eraberritzea.
- Iriste erraztasuna.
- E.a.).

6. Lerroa. — *Gizarte kohesioa*

Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsona eta familiei bizi direnako eraikineko elementu komunak birgaitzeko lanetan sortzen zaizkien gastu ekonomikoak babestuko ditu lerro honek.

7. Lerroa. — *Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzeko jarduketak*

Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzeko jardueratzat hartuko dira erabiltzen ez diren edo narriadura egoeran dauden eraikin eta espazio publiko pribatuetan burututako obra edo esku-hartzeak, baldin-eta erabilera partikularra baino zabalagoa den erabilerarako «berde» bihurtzen bada eta klima alaketara egokitze aldera baliabide naturalak baliatzeko modua egiten bada. Hau da, patioak eta estaldurak birnaturalizatu eta lorategiak eraikitzen direnean, besteak beste.

Hirugarrena. — *Onuradunak*

Onuradunak, dagokion babes lerroaren arabera, honako hauek izango dira:

- 0 Lerroa:
 - Egoitza erabilera duten eraikinak, bai Jabekideen Elkarte gisa bai eraikinaren jabe fisiko diren pertsona gisa ere. Eraikina babestuta balego, egoitza erabilera duen eraikinaren jabe den pertsona juridikoa ere izan daiteke onuraduna.
- 1. Lerroa:
 - Ohiko etxebizitzatzat duten etxebizitzaren pertsona jabe fisikoak, hogeita bost mila euro (25.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.



- Etxebizitzen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita bost mila euro (25.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak izanda, nahiz eta ohiko etxebizitza izan ez, erkidegoko araudian jasotako salbuespenak betetzen dituztenean.
 - Negozio-lokalen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita bost mila euro (25.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.
- 2. Lerroa:
- Ohiko etxebizitzatzen duten etxebizitzaren pertsona jabe fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.
 - Etxebizitzen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak izanda, nahiz eta ohiko etxebizitza izan ez, erkidegoko araudian jasotako salbuespenak betetzen dituztenean.
 - Negozio-lokalen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.
- 3. Lerroa:
- Ohiko etxebizitzatzen duten etxebizitzaren pertsona jabe fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.
 - Etxebizitzen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak izanda, nahiz eta ohiko etxebizitza izan ez, erkidegoko araudian jasotako salbuespenak betetzen dituztenean.
 - Negozio-lokalen jabe diren pertsona fisikoak, hogeita hemeretzi mila euro (39.000,00€) arteko diru-sarrera haztatuak dituztenean.
- 4. Lerroa:
- Jarduketa lerro honek babestutako lan batez esku-hartuko deneko eraikin, etxebizitza edo lokal baten jabe den edozein pertsona fisiko edo juridiko.
- 5. Lerroa:
- Beheko solairuetan abian diren edo abiatuko diren jarduketan titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, bertako obra, instalazio edo jarduketak haren kargura burutzen direnean. Lokala itxita edo jarduerarik gabe egonez gero, onuradunak lirateke berorren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak.
- 6. Lerroa:
- Onuradunak izango dira ohiko etxebizitzatzen dutenekoaren jabe diren pertsona fisikoak, baldin eta familia-unitatearen kide guztien diru-sarrera haztatuak gehienez hogeita bost mila euro (25.000,00€) izan eta Bilbon beste etxebizitzaren bat ez badute.
- 7. Lerroa:
- Jarduketa sustatu eta ordainduko duten pertsona fisiko edo juridikoak eta Jabekideen Elkartek, beti ere, jabegoaren baimena dutenean, beraiek ez badira. Lerro horietatik guztietatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, sektore publikoko erakundeak, finantza erakundeak eta antzekoak, eta Estatuko edo nazioarteko enpresa handien filialak, eta higiezinari emandako laguntza-zenbatekotik kendu egin beharko da erakunde horiei dagokien parte-hartze kuotari proportzionala den zenbatekoa.

Laugarrena. — Aurrekontu esleipena

Laguntza hauei erantzuteko aurrekontu esleipena dagokion deialdian ezarrita geratuko da; deialdi hori Diru Laguntzen Estatuko Datu Basean argitaratuko da eta horren laburpena, gainera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin aurrekontuan kontsignatua agortuta, laguntzak eten egingo dira, harik-eta aurrekontu berria hornitzen den arte, kasua bada.

**Bosgarrena. — Laguntzak jasotzeko betekizun objektiboak eta onuradunak**

5.1. Oinarri hauetan araututako laguntzak jasotzeko nahitaezko betekizuna izango da ondare urbanizatu eta eraikia birgaitze gaietan indarrean dagoen autonomi araudiak eskatutako baldintza guztiak betetzea, Oinarrietan berariaz jasotako salbuespenetan izan ezik.

5.2. Aurrekontu babesgarria unean-unean osagarri aplikatzekoa den araudi autonomikoak ezartzen dituen kontzeptu eta gastuek osatuko dute. Ez da BEZa sartuko jardueraren titularrak eskatutako 5. Lerroko jarduketetan.

5.3. Erkidegoko araudiaren gutxieneko aurrekontu babesgarrira iristeko betekizuna aplikatzekoa izango da, honako jarduketetan izan ezik:

- 0. lerroan berariaz horrela jasota dagoen elementu komunetan.
- Elementu pribatiboen gaineko esku-hartzean, 1. lerroan berariaz hala jasota dagoenean.
- 1. lerroko alde bakarreko hipoteka eratzeko eta inskribatzeko gastuei aurre egiteko laguntza berezian.
- 6. lerroko laguntzak izapidetzen diren kasuetan.
- Lehenengo Xedapen Gehigarritik laugarrenera jasotako laguntzak eskatzeko.
- Amianto kentzeko edo erabilera publikoko espazio pribatuak urbanizatzeko lanak jasotzen dituzten 4. Lerroko jarduketetarako.

5.4. Baldin eta eraikuntza, nahiz eta jabeekideen elkarte gisa eratuta egon, autonomi araudiaren irizpideei jarraituz egoitza eraikintzat hartu ezin bada, Surbisak bere lerro guztietako laguntzak aitortuko dizkie, hala badagokio, etxebizitzaren jabeek, pertsona fisikoak izanda, banaka horrela eskatzen badute, eta euren partaidetza kuotarekiko proportzioan.

Hala ere, Oinarri hauek aplikatzeko xedez soilik, ez da egoitza erabilerakotzat hartuko eta, beraz, ez dira banakako laguntzen onuradun izan Eusko Jaurlaritzako Turismo Jardueren Erregistroan, edozein modalitatetan, inskribatutako etxebizitzak.

Ez da beharrezkoa izango eraikinak egoitza erabilera izatea 4. edota 7. lerroek babestutako jarduketa babesgarrietarako.

5.5. Elementu pribatiboetan gaineko obretan bizikidetza edota familia unitate hauen diru-sarrerak jarduketaren aurrekontu babesgarriaren % 20ra, gutxienez, irits dadin eskatuko da; hala ere, oinarrizko instalazioetan bizigarritasun baldintzak betetzen ez eta esku-hartze berezia behar dutenean eta obretarako tutoretza berezi bat beharrezkoa denean eginiko obretan eta aldebakarreko hipoteka formalizatu eta inskribatzeagatik kostuei aurre egiteko laguntza espediente bat tramitatzen den balizkoetan, ez da hori eskatuko.

5.6. Onuradunek ordainduta izan beharko dituzte Udalarekiko edota Surbisarekiko betebeharrak ekonomikoak eta urbanistikoak, bai diru-laguntzak aitortzeko unean bai ordaintzerakoan ere, eta Surbisako eskaria egin aurretik egiaztatu beharko dute halaxe dela.

Ez zaizkie laguntzak aitortuko beste espediente batzuetan —hirigintzazkoetan nahiz Surbisak tramitatutako laguntzetan— euren betebeharrak bete ez dituztenei, eta ezingo dira zor horiek konpentsatu balizko laguntza berri hauekin.

5.7. Bestalde, jabetzari ez zaio diru-laguntzarik aitortuko etxebizitza horretan bizi diren bizikidetza unitateko kideek edota gainerako egoiliarrek komunitatean eragin negatiboa duten gizalegearen kontrako jokaerak baldin badituzte. Beti ere, egoera hori behar bezala justifikatua egongo da edo Jabeekideen komunitateak eskatu beharko du Batzarraren erabakiz.

5.8. Aurretiaz emandako laguntzek ez dute inolako eskubiderik sortzen eskatzailleen alde, eta aurrekaria ez da kontuan hartuko emakida berri baterako irizpide erabakigarri gisa.

**Seigarrena.—Jarduketan denbora-eremua**

Obren egikaritzea laguntzen eskatzaileek dagokion eskari-orrian edo aparteko jakinarazpenean adierazitako epean burutu beharko da.

Diruz laguntzekoak diren lanak egikaritzen direneko ekitaldian burutu beharko da, ahal dela, diru-laguntzen onespina eta ordainketa. Lanak bi urte desberdinetan egikaritzekoak badira, urte bakoitzean egikaritzeko den lanaren portzentajea adierazi beharko da.

Horri dagokionez, zati batean onetsi ahalko dira laguntzak urte natural horretan egikaritzeko den portzentajeari begiratuta, eta ordaintzeko geratuko da -eta beste espediente batzuen aldean, lehenetsita- hurrengo urte naturaleko gainerako zatiaren onespina; azken honen ebazpenak laguntzen zatikako lehenengo onespen unean indarrean zegoen araudia errespetatuko du. Onespenaren zenbatekoa lerro baten edo batzuen kargura egin ahalko da, eta lehentasuna izango dute komunitateko laguntzak partikularren aldean.

Lanak egikaritu aurretik jakinarazi gabe eginiko diru-laguntza eskariak ez dira onetsiko. Salbuespenez, lanak egikaritzeari ekin gabe espediente onetsi ahalko da Komunitateak berariaz hala eskatzen badu, eta horretarako arrazoiak adierazten baditu.

Epe eta betekizun hauek betetzeke uzteagatiko ondorioak, aitortutako laguntzak galtzeari dagokionez, laguntzen onuradunen eta soilik euren kontu eta kargurako izango dira, eta beren beregi onartuko dute erantzukizun hori Surbisaren laguntza hauen eskarian.

Zazpigarrena.—Diru-laguntzen zenbatekoak, mugak eta bateraezintasunak**7.1. Zenbatekoak**

Bigarren Oinarrian aurreikusitako jarduketa lerroren batean sartutako lanen egikaritzea dela-eta onuradunek jaso ditzaketen diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriaren gaineko portzentaje bat aplikatuko da, Eusko Jaurlaritzatik jasoko diren laguntza orokorrak eta Surbisaren 0 eta 4 lerrokoak kenduta. Ondoren adieraziko da hori:

0 Lerroa.—Obra babesturako laguntza zuzena

Jabegoak aurrekontu babesgarriaren %10eko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko du; gehienez, hamabost mila euro (15.000,00€).

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, udal betearazpen agindu bat betetzera edo Eraikinen Ikuskatze Teknikoan (EIT) antzemandako hutsak konpontzera zuzenduta komunitate-obretan, baldin-eta aurrekontu babesgarria, etxebizitza edota lokal bakoitzeko mila euro (1.000 €) baino altuagoa eta hiru mila euro (3.000 €) baino baxuagoa bada: aurrekontuaren % 25 arte babestuko da, gehienez hamabost mila euro (15.000 €) emango dira espediente bakoitzeko; eta espediente bati, bi aurrekontu-ekitaldiko; hala ere, Surbisaren irizpide teknikoei jarraituz, azken muga horretatik aske gera daiteke.

1. Lerroa.—Zaugarritasuna

Jarduketa lerro honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonak aurrekontu babesgarriaren gainean, koadroan adierazitako portzentajeari baliokide zaion itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko dute, bertan islatutako mugak kontuan hartuta.

Urteko diru-sarrera haztatuak	Etxebizitza	Eraikina	Aldebakarreko hipoteka gastuak
<25.000,00€	% 50	% 15	% 100
Gehienezko zenbatekoak	Espedienteko / urteko 1.500€	Espedienteko 9.000,00€	800,00€

**2. Lerroa. — Segurtasuna**

Jarduketa lerro honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonen aurrekontu babesgarriari aplikatutako portzentajearen baliokide den itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko dute, onuradunen diru-sarrera haztatuak kontuan hartuta eta honako muga hauekin.

Urteko diru-sarrera haztatuak	Elementu komunak	Etxebizitza
<25.000,00€	% 20	% 10
<39.000,00€	% 35	% 10
Lokalen jabe diren familiak, 0,00€ eta 39.000,00€ bitarteko diru-sarrerak dituztenak	% 35	% 0
Gehienezko zenbatekoak	Espedienteko 9.000,00€	Etxebizitzako 9.000€

3. Lerroa. — Iriste erraztasuna

Jarduketa lerro honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonen aurrekontu babesgarriari aplikatutako portzentajearen baliokide den itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko dute, onuradunen diru-sarrera haztatuak kontuan hartuta eta honako muga hauekin:

Urteko diru-sarrera haztatuak	Elementu komunak	Etxebizitza
<25.000,00€	% 20	% 10
<39.000,00€	% 35	% 10
Lokalen jabe diren familiak, 0,00€ eta 39.000,00€ bitarteko diru-sarrerak dituztenak	% 35	% 0
Gehienezko zenbatekoak	Espedienteko 9.000,00€	Etxebizitzako 9.000€

4. Lerroa. — Proiektu bereziak

Laguntza lerro honen onuradun izan daitezkeen pertsonen aurrekontu babesgarriaren % 10ari baliokide zaion laguntza jasoko dute; gutxienez, berrogeita bost mila (45.000,00€) euro elementu komunetako obra espedienteagatik, eta bederatzi mila (9.000,00€) euro elementu pribatiboetako obra espedienteagatik.

Fatxadetako kable-sareak kentzeko jarduketek eta amianto kentzekoek aurrekontu babesgarriaren % 50aren baliokide den laguntza jasoko dute, lerro honetako gainerako laguntzek duten muga berbera kontuan hartuta

Birgaitze prozesuan zehar aztarna ekologikoa murrizteko modua kontuan hartu eta hondakinen tratamendua modu egokian kudeatzen duten proiektuak baldin badira, 1.000,00€-ko laguntza osagarria emango da, Obra Amaierako Ziurtagirian behar bezala egiaztatuta agertzen badira babestutako jarduketan eskatutako alderdiak bai eta Hondakinen Kudeaketako Amaierako Txostena, organo eskudunak egiaztatutakoa, aurkeztu ostean.

Laguntza horiek jasotzeko, aparteko espediente bat tramitatu eta onetsiko da.

5. Lerroa. — Beheko solairuetako merkataritza-lokaletan hiri irudia

Jarduketa lerro honetan sartzan diren laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonen aurrekontu babesgarriaren % 40ari baliokide zaion itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko dute; espediente bakoitzeko, gehienez, bost mila (5.000,00€) euro.

**6. Lerroa. — *Gizarte kohesioa***

Jarduketa lerro honetan sartzen diren laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonen gainerako diru-laguntzei erantsitako banakako laguntza osagarri bat jasoko dute, aurrekontu babesgarriaren % 100ari baliokide zaion zenbatekoa jaso arte.

Zenbateko hori kalkulatzeko, Surbisatik nahiz Eusko Jaurlaritzatik jasotzekoak diren banakako laguntzak hartuko dira kontuan, bai eta komunitateari emandako laguntzetatik egokitu ahal zaion zati proportzionala ere.

7. Lerroa. — *Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzeko jarduketak*

Jarduketa lerro honetan sartzen diren laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonen jarduketaren kostuaren % 50ari baliokide zaion itzuli beharrik gabeko diru-laguntza jasoko dute; esku-hartze bakoitzeko, gehienez, hamabost mila (15.000,00€) euro.

7.2. Mugak eta bateragarritasunak

Etxebizitza birgaitzeko edo etxebizitza edota lokal bakoitzeko eraikin batek jasotako guztizko diru-laguntza ez da inoiz ere bederatzi mila (9.000,00€) euro baino gehiagokoa izango elementu eta Lerro bakoitzeko. Gauzak horrela, alde bakarreko hipoteka eratzeko 1. Lerroko laguntzaren tramitaziorako espedientea 9.000,00€-ko gehiengora iritsi deneko espediente batetik eratorria denean, ez du izango alde bakarreko hipotekarako laguntza hori tramitatzeko aukerarik.

Lerro guztiak elkarrekiko bateragarriak dira, 2 eta 3 lerroak izan ezik. Horien banakako aurrekontu babesgarriak batuta, ezingo da gainditu laguntzen espedientearen guztizko aurrekontu babesgarria.

Oro har, oinarri hauetan araututako diru-laguntzak eta Surbisak edo beste erakunde batzuek araututakoak bateragarriak dira; hala ere, jasotako diru-laguntzen guztizkoa ezingo da izan aurrekontu babesgarriaren % 100 baino handiagoa. Portzentaje hori gaintuz gero, Surbisak bere laguntzak murriztuko ditu gain-finantziatutako zenbatekoan.

Aurrekoa gorabehera, bateraezinak izango dira Hirugarren Xedapen Erantsian araututako laguntzak eta Bilbo osoan Termitek kaltetutako eraikinetarako dauden laguntzak.

Ezingo da eskatu azken hamar urteetan Surbisaren laguntzekin birgaitu diren elementuak birgaitzeko laguntzarik, ezinbesteko zioez egin direnean salbu.

Itzuli beharrik gabeko SURBISaren diru-laguntzaren onuradun izan eta azkenean diruz lagundutako obrari ekiteko indemnitazioak –aseguruetatik nahiz auzi-bideetatik eratorriak- edo beste erakunde batzuen diru-laguntzak jasotzen dituztenek SURBISari jakinarazi beharko diote, egiaztatzeko ez dagoela gain-finantziatorik eta, hala badagokio, kasuan-kasuan egokitzen zaizkion laguntzak birkalkulatzeko.

Era berean, ezingo dira banako laguntzak eskatu, aurrekoak kobratu direnetik 5 urte igaro arte, ez Komunitatekoak ez etxebizitzakoak, beste higiezin bati dagozkion jarduketengatik, aurreko higiezinaren transmisioa egiaztatzen ez bada behintzat.

Zortzigarrena. — *Eskaerak aurkeztea***8.1. Eskaerak aurkezteko lekua**

Behin diru-laguntza eskariak beteta eta eskatutako dokumentazioa erantsita, Surbisak Bilboko Erronda kaleko 6. zenbakian dituen bulegoetan aurkeztuko dira eskariak. Hori guztia birgaitzeko autonomi araudiak hala eskatuta, eskaria telematikoki aurkezteko beharraren kaltetan izan gabe.

Digitalki aurkeztutako edozein eskaera eginez gero, onartu egiten da etorkizuneko jakinarazpen edo oharra era berean egingo direla, eta posta bidezko jakinarazpenen eragin juridiko berberak izango dituzte jakinarazpen digital horiek

8.2. Aurkezteko epea

Laguntzen eskariak aurkezteko epea zabalik egongo da Oinarrien indarraldian eta harik-eta urtero argitaratzen den aurrekontu hornidura agortzen den arte edo, kasua bada, zabaltzeak irauten duen arte.



Urteko hornidura agortutakoan, eskari berriak aurkeztu ahalko dira, baina horiek aurrekontu-hornidura dagoeneko hurrengo ekitaldian ebatziko dira.

Dena dela, eskaria lanak hasi aurretik aurkeztu beharko dela gogorarazten da.

8.3. Erantsi beharreko dokumentazioa

Surbisak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren laguntzen leihatila bakarra zabal-tzen duenez, autonomi administrazioak haren tramitaziorako eskatzen dituen dokumen-tuak aurkeztu beharko dira nahitaez.

Dokumentazio horretaz gain, honako hau aurkeztu beharko da:

- Oinarrien ereduarekin bat datorren eskari-orria.
- Elementu komunetan egiten diren obrak: Obra babestua egikaritzeko kontratatuta-ko enpresaren finantza-kaudimena egiaztatzen duen dokumentua, bai eta bertan hitzartutako ordainketa moduen adierazpen bat ere, eska daiteke. Surbisak doku-mentazio hori aurkezteko beharretik aske utziko ditu aitortzekoak diren laguntzak ez direnean portzentualki esanguratsuak burutu beharreko lanaren guztizko zen-batekoaren aldean.
- Euskal Herriko Autonomi erkidegoaren alde aldebakarreko hipoteka bat eratu eta Jabetza Erregistroan inskribatzeagatiko gastuetarako 1. Lerroan aurreikusitako laguntzen eskaerarekin batera, inskripzioaren ziurtagiria eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira.
- 6. Lerroan jasotako diru-laguntzak eskatzeko, berariazko eskaria egin beharko da. Bertan, diru-laguntza hauek jasotzeko borondatea adierazi beharko da eta 12.2. Oinarrian jasotako karga erregistroan inskribatzeko konpromisoa ere bai. Era be-rean, etxebizitzak jabe bat baino gehiago izanez gero, Jabetza Erregistroan ins-kripzioa gauzatu ahal izateko jabe guztien baimena aurkeztu beharko da.
- 6. Lerroko laguntzak eskatzeko, ez da nahikoa izango, beraz, inprimaki arruntare-kin bat datorren laguntza-eskari bat aurkeztearekin. Hala ere, programa honetako laguntza-eskaria diru-laguntza arruntaren eskariarekiko paraleloan izapidetuko da.

Espedientea, eskaria aurkezten denetik gehienez sei hilabeteko epean berrikusi beharko da. Baldin eta espedientearen tramitazio aldian aurkeztutako eskarian nola-baiteko akatsa, zehaztasunik eza edo erantsi beharreko dokumenturen baten falta da-goela ikusiko balitz, eskaera-inprimakian agertzen den eskarigileari edo Komunitatearen ordezkariari jakinaraziko litzaioke, eta gehienez hilabete bat emango litzaioke akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa ekartzeko, eta esango zaio hala egiten ez badu eskariari uko egin diola ulertuko da eta horretarako eragina duen jakinarazpena igorriko zaio.

Surbisak informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahalko dio eskarigileari, di-ru-laguntza emateko eta proiektua eskatutako xedeetarako egokia den zehazteko edo bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa duela justifikatzeko.

8.4. Diru-laguntzak eskatzen dituzten pertsonen emandako datu pertsonalak datuen babeserako gaietan indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituz erabiliko dira, eta tratamendu horren arduraduna izango da Surbisa, IFK A48164339 duena, eta egoitza Bilboko Erronda kaleko 6.ean duena (telefono zenbakia 944.159.955) surbisa@surb.bilbao.eus

Datu horien xedea izango da laguntzen eskaeren analisia eta kudeaketa eta, hala badagokio, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzea eta kontrola. Datuak estatistikarako ere erabili ahalko dira.

Bederatzigarrena.— Hautatze irizpideak, eta laguntza emateko proposamena eta erabakia

Diru-laguntzak lehiaketarik gabeko prozedurako erregimenean onetsiko dira, aurre-kontu kreditua agortu arte, eta aurkeztutako eskarien aurkezpen-ordena jarraituko da ho-rretarako, Zortzigarren Oinarrian aurreikusitakoari jarraituz. Lehenetsi egingo dira, beste



eskari batzuen aldean, Surbisari obren hasiera jakinarazi (Seigarren Oinarrian adierazita bezala), eta amaiera data ekitaldi horretarako aurreikusita dutenak.

Urte bakoitzaren hasieran, lehentasuna izango dute aurreko urtean zati batean onetsitako jarduketek, bai eta aurreko urtean hasitakoek ere.

Surbisako Presidentziak, bertako teknikariek eginiko proposamena ikusita, dagokion diru-laguntza eman ala ez emateari buruzko erabakia hartuko du. Baldin-eta laguntzak emateko erabakia hartzen bada, horren zenbatekoa adieraziko du, eta Komunitatea osatzen duten jabegoen artean nola banatzen den ere bai; eta ukatzen bada, horretarako arrazoiak adieraziko dira.

Lanen hasieraren jakinarazpena egin, edo aurkeztutako laguntza-eskaria osotuta egon (beranduen egiten den eguna) eta gehienez sei hilabeteko epean, eta beti ere lanen egikaritzea urte naturalean amaitzekoa denean, dagozkion laguntzak onetsi eta jakinarazteari ekingo zaio.

Epea amaitu eta jakinarazpenik egon ez bada, erabakia ezezkoa dela ulertuko da isiltasunagatik, berariaz erabakitzeke betebeharraren kaltetan izan gabe.

Jakinarazpenean, erantsita etorriko da Ebazpen orokor bat, komunitatearen kontuan sartuko diren guztizko zenbatekoak jasotzen dituen; gainera, jabe bakoitzari dagozkion zenbatekoak eta Komunitateari aitortutako laguntza lineala ere adieraziko da. Horrela, ordezkariak onuradun bakoitzari emango dio dagokiona.

Diru-laguntza modu arrazoituan ukatu ahalko da baldin-eta EITari, aplikatzekoa den Hirigintza Antolamenduari edo hirian eragin dezakeen inpaktu ikusizko edo estetikoari erreparatuz, diruz laguntzekoa den jarduketan kontuan hartzen ez bada etxebizitzan antzemandako akats edo desegokitasunak zuzentzeko lana –interesatuari idatziz jakinarazitakoa–.

Erabaki horren aurka errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Administrazio Kontseiluko presidenteari, Laguntza espedientearen erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamu-netik hasi eta hilabeteko epean. Errekurtsoaren ebazpenaren berri eman beharko zaio Surbisako Administrazio Kontseiluari, zein gutxienez urtean lau aldiz bilduko den.

Hamargarrena. — Diru-laguntzaren baldintzen aldaketa eta itzultzeak

10.1. Aurrekontu babesgarriaren goranzko aldaketa onargarria izango da eta, ondorioz, emandako laguntzen handitze proportzionala ere bai, baldin eta partiden neurketen hazkuntzak edo obraren partida berriak, hasierako aurrekontuaren % 10etik gorako zenbatekoan, sortzen badira (beti-ere laguntzen xede diren obra barruan).

Jabekideen Elkartek onetsitako aurrekontu babesgarriaren minorizazioa gertatzen bada, laguntzak proportzionalki murriztuak izango dira, beti ere horien guztizko zenbatekoa hirurehun eurotik gorakoa (300,00€) bada.

10.2. Obrak Udalak egikaritu behar baditu, jabeek egiten ez dutelako, onetsitako laguntza-espedienteak baliogabetu edo aldatu egin daitezke, aurretik Administrazio Kontseiluak ziotutako erabakia hartzen badu eta, era berean, obra horiek babesteko laguntza espedienteen onespenean ere honen onespenean beharko dute.

10.3. Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –honen xedea betetzat ematen denean eta, kasua bada, beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako laguntzak batera jaso direnean– laguntza emateko erabakia aldatu egin ahalko da.

10.4. Unean uneko urte naturaleko irailaren 30a baino lehen, onuradunek idatziz eta zergatia esanda, aitortuta duten laguntzaren aldarazpena eskatu ahalko dute zertarako-eta urte horretarako aitortutako laguntza hurrengo aurrekontu-ekitaldira geroratze-ko. Kasu horretan, eta Surbisako Presidentziak aurretik onetsita, zenbateko hori erabili halako da aurrekontu-esleipenik ez egoteagatik onesteke geratutako beste jarduketa batzuk finantzatzeko.

Epe horretan uko egiten badiote, eta hurrengorako aurrekontu-esleipena baldin badago, ekitaldi berriaren kargurako aitortza baloratu ahalko da. Egiten ez badute, urte natural horren barruan justifikatu gabeko diru-laguntzaren zatia galdu egingo dute.

**Hamaikagarrena. — Diru-laguntza ordaintzea**

Oro har, laguntzen ordainketa, behin obren egikaritzea amaituta, Jabekideen Elkar-teak adierazitako banku-kontuan adierazitakoan sartuko da dirua, elementu komunitario obretan, edo onuradunak adierazitakoan, elementu pribatiboetan.

Aitortutako laguntzak ordaintzeko, eta fakturak eta obren egikaritzea egiaztatzeko dokumentu teknikoak aurkezteko beharrezko baldintza izan gabe, nahikoa izango da Sur-bisaren zerbitzu teknikoaren txostenarekin, non adierazita geratzen den obrak eskarian aurkeztutako plangintza itxuraz bete egiten duela.

Laguntzak egiaztatzeko amaierako dokumentazioa aurkezten denean, Surbisak Ogasun Arloari jakinarazi ahalko dio obraren amaieran ordaindutako prezioa, zertarako-eta obratik eratorritako udal tasa eta zergak birkalkulatuak izan daitezkeen. Ogasun Arloak igorri dezakeen likidazio berriak ez dakar emandako laguntzen igoerarik.

Era berean, laguntzen espedienteekin batera aurkeztutako Obra Amaierako Ziurtagirien dokumentuak Hiri Plangintzako Sailari helarazi ahalko zaizkio, martxan dauden jarduketekin lotutako hirigintza espedienteak osatzeko.

Laguntzen ordainketaren prozesura arruntaren baldintza izan gabe:

- Egikaritutako obraren zatikako ziurtagiriak tramitatu ahalko dira, Surbisako teknikarien oniritzia izanda.
- Laguntza linealen zati baten aurrerakina lortu ahalko da, eta ekitaldian bertan egikaritu eta justifikatuko dira horiek.
- Era berean, premiaz, zaurgarritasunez edo elementu bakoitzeko aurrekontu babesgarria etxebizitza edo lokal bakoitzeko 250€/m²-tik gora denean, diru-laguntzaren ordainketa aurreratu ahalko da dokumentuen idazketaren ordainketaren baliokide den zenbatekoan, eta emandako laguntzaren gainerakoaren % 20an. Ondorengo ordainketak egiteko, aurretik justifikatu egin beharko da aurrerakin hori gastatu izana.
- Amaitzeko, eta Kohesio sozialerako den 6. Lerroari dagokion laguntza ordaindua izateko, onuradunak egiaztatu egin beharko du 12.2 Oinarrian ezarritako karga Jabetza Erregistroan inskribatu duela.

Hamabigarrena. — Onuradunen betebeharrak eta laguntzen baliogabetzeak**12.1. Betebeharrak**

Laguntzen onuradunen betebeharra da:

- Oinarri hauetan ezarritako guztia betetzea eta, batez ere, konprometitutako obra-epeak.
- Jabetzak laguntzak jaso ditueneko etxebizitza jabetza horren ohiko etxebizitza eta iraunkorra izango da lanaren egikaritzeak eta espedientearen tramitazioak irauten duen aldi osoan, autonomi araudiak salbuetsitako balizkoan izan ezik.
- Etxebizitza edo lokalak, nahita, inter vivos ez uzteko edo mortis causa ez eskualdatzeko betebeharra, egikaritutako obraren amaiera-egiaztapenetik hasi eta 10 urteko epean, aurretik jasotako laguntzen berrikusketa egin gabe, itzulketaren unean eguneratuta, dagokion legezko interesa eta guzti, beti-ere jasotako diru-laguntza 6.000€-koa edo hortik gorakoa bada.
- Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea, eta adierazitako epeetan.
- Uneoro Surbisako teknikariek obrak ikuska ditzaten ahalbidetzea, eta horiekin lotuta eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztea.
- Obrak amaitutakoan, guztizko eta behin betiko kostua egiaztatzea, egiaztagiria, ziurtagiriak, fakturak edo horretarako eskatzen zaizkien beste edozein dokumentu aurkeztuta.

Oinarri hauetan jasotako laguntzen tramitazioa, nahitaez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eman eta Surbisak tramitatzeko dituen laguntzen tramitazioarekin batera



egin beharko dira. Baterako tramitazioa onetsi ezean, ezin izango dira Oinarri hauetan jasotako laguntzak jaso.

Surbisak, egoki irizten dituen bideak erabiliz, egiaztatu egin dezake emandako kopuruak ondo aplikatu diren helburuei dagokienez, eta, horretarako, gastua kontrolatu ahal du eta, hala badagokio, erantzukizunak eskatu, bai eta funtsak itzul daitezen ere, laguntza emateko zioa beteta ez balego. Horretarako, onuradunak nahitaez Surbisak, laguntzen helburuaren fiskalizazio funtzioak egikaritzuz, eskatutako informazio guztia eman beharko du.

Onuradunaren ardura da burutuko den proiektuak indarren dagoen araua osoki, aplikagarri zaizkion ataletan, bete dezan bermatzea, bai baldintza teknikoak, hirigintzakakoak nahiz izaera zibilekoak edo bestelakoak. Surbisak ez du inolako erantzukizunik izango onuradunak arauaren bat beteko ez balu.

Era berean, jakinarazten da jasotako laguntzak lotuta daudela Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergari (PFEZ) eta Komunitatea izango da, kasua bada, dagozkion aitorpenak formalizatu eta parte-hartzaileei jakinarazteko ardura izango duena.

12.2. Gizarte Kohesioko 6. Lerroaren onuradunentzako betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz laguntzekoak diren jarduketak burutu direneko erakinean daukan finkaren gaineko domeinu-mugaketa bat edota Surbisaren aldeko aldebakarreko hipoteka bat erregistroan inskribatzeko.

Erregistro-inskripzioan jasota geratuko da derrigorrezkoa dela itzultzea programa honengatik jasotako laguntzaren zenbatekoa gehi erregistro kargei aurre egiteko gastuak eta jasotako egunetik sortutako legezko interesak, baldin eta inter vivos edo mortis causa bidez etxebizitza esku aldatzen bada. Behin interesak kalkulatuta, guztira itzuli beharreko zenbatekoa inola ere ez da izango emandako tronkoaren bikoitza, KPlarekin eguneratuta.

Salbuespenez, ez dira jasotako zenbatekoak itzuli behar izango, mortis causa eskualdaketetan, baldin eta jabegoa jasotzen duenak egiaztatzen badu laguntza jasotzeko beharrezko baldintza ekonomikoetan dagoela eta, gainera, etxebizitza hori ohiko etxebizitza iraunkorrerako erabiliko duela. Azken balizko honetan, laguntza itzultzeko betebeharra etxebizitzaren hurrengo eskualdaketara arte geroratu da. Inskripzioaren indarraldia berrogeita hamar urtekoa izango da.

12.3. Laguntzak baliogabetzea

Aitortutako laguntzak baliogabetu egin ahal du, aurretik interesatuari hamabost (15) egun lehenago audientzia emanda honek eskarian adierazitako helbide elektronikoan edota posta helbidean (bi saiakera egingo dira), datuak faltsuak direnean, onuradunen betebeharrak betetzen ez direnean, edo araudi hauetako baldintza orokorren bat edo obra lizentzian nahiz laguntzen erabakian bertan jasotako baldintza partikularren bat betetzen ez denean.

Laguntzak ezeztatuz gero, Surbisari itzuli beharko zaio jasotako zenbatekoa eta horri dagozkion interesak. Gainera, egokitu ahal zaizkion legezko ekintzak edo isunak ere sortu ahal dira.

Diru-laguntzaren onuradunek baldintzak ez betetzean izandako nahitasun-maila baliogabetu ere ekin dakioke, diru-laguntzaren zenbatekoa edo itzuli beharreko zenbatekoak zein izan behar duen erabakitzeko.

Ez betetzeagatik espedienteari hasiera ematea Surbisako Zuzendaritzari dagokio eta erabakia hartzea, Presidentetzari.

Hamahirugarrena. — Publizitatea eta hedapena

13.1. Herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen, diru-laguntzak eman edo ez emateko erabakiak, eta egon litezkeen aldaketak, Elkartearen web orrian eta Diru Laguntzen Estatuko Datu Basean argitaratuko da, hala behar izanez gero.

13.2. Laguntzen onuradunek laguntza eman beharko dute Surbisak birgaitzea finantzatzen izan duen partaidetza hedatzeko.



Gauzak horrela, Oinarri hauen babesean emandako diru-laguntzek atxikitako eraikinariek Surbisak emandako ereduari jarraitzen dion iragarki bat daramaten kartelen bidez obraren egikaritzak irauten duen bitartean fisikoki islatuak izateko aukera egongo da.

Gainera, diruz laguntzekoak diren proiektu teknikoetan jasotako argazki eta dokumentazio teknikoa erabili ahalko du Surbisak berak esku-hartzen duen jarduketaren publikitatea eta hedapena egiteko, beti ere egilearen jabetza intelektuala errespetatuz.

Hamalagarrena. — Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabeko guztian, ondare urbanizatu eta eraikiaren birgaitze gaitan Euskadiko Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen araudia eta dagozkion Udal hirigintza ordenantzak bete beharko dira.

Surbisako Administrazio Kontseiluak diruz lagundutako jarduketetan lortutako emaitzak ebaluatu ahalako ditu, eta ateratako ondorioak diru-laguntza edo laguntza berriak eman edo ukatzeko informazio-irizpidetzat hartuak izan daitezke.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Ondoren, Oinarri hauetan dauden laguntzen osagarri diren laguntza guztiak jasotzen dira. Hauek dira berez, helburu jakin bat ez dutelako, jarduketa programa edo lerro bat eratzen ez dutenak edo Surbisaren kudeaketa arlo guztietara oro har aplikatzekoak ez direnak.

Lehena. — Tranbiaren trazadurak atxikitako eraikinetan aldarmioak jartzeko laguntzak

Eutsi egiten zaio Administrazio Kontseiluak 2002ko abenduaren 16an onetsi eta 2017ko ekainaren 8an zabaldua izan zen Laguntza berezia, zeinen bidez tranbiaren trazadurak eragindako eraikinetan aldarmioak jartzeak jabeekideen komunitateetarako sortzen duen gaitzaren ordaintzen den.

Bigarrena. — Finka Administrazioak kontratatutako laguntzak

Eutsi egingo zaio Administrazioari zerbitzu profesionalak kontratatutako Laguntza bereziari, baina honako edukia izango du oraingoan:

- Surbisaren eremuetan kokatutako egoitza eraikinen Jabeekide Elkarteek laguntza bat jaso ahalko dute Finka Administrazioari zerbitzu profesionalak kontratatutako, baldin-eta Komunitate horretan diagnostikatutako eta gizarte langileak igorritako txosten bidez justifikatutako bizikidetzaren arazoari aurre egiteko bada.
- Zerbitzu horiek onetsiak izateko, Surbisak emandako prestakuntza ikastaro bat gaitutuz zutenen artean sortutako Poltsa batean daudenak izan beharko dute eta, gainera, gutxienez bi aurrekontu eskatu izana egiaztatzea beharko da.
- Laguntza hori honetan datza: lehenengo urtean, Administrazioaren ordainsari arruntaren % 100 ordainduko da; bigarren urtean, % 75, eta hirugarrenean % 50. Salbuespenez, Surbisako gizarte langilearen aurretiko txostena eginda, programaren indarraldia luzatu egin ahalko da Komunitateak ezin izan duenean programaren sartzeko arazoia izan zen arazoa konpondu, eta horien baliogabetzea ere proposatu ahalko du baldin-eta aurreikusitako helburuak betetzen ez badira.
- Laguntzak urtero ordainduko dira eta aldeztu aurretik, aurreko urteari dagokion faktura aurkeztu eta gero. Hau da, lehenengo ordainketa zerbitzu hauen kontratazioaren justifikazioarekin batera egingo da, eta ondorengo ordainketak behin aurreko hamabi hilabeteetako fakturak aurkeztutakoan.
- Surbisako Presidentetzari baimena ematen zaio finka administrazioaren poltsa berri bat sortzeko, orain indarrean dagoena agortutzat ematen denean.

**Hirugarrena.— Baterako jarduketak: Termiten aurkako tratamendua eta Karkabak**

Jabekideen komunitateei itzuli beharrik gabeko diru-laguntza emango zaie, termiten aurkako baterako tratamendua egiteagatik kostuen % 50 emanda, jarduketa bakoitzeko gehienez hamabost mila euro (15.000€) izango direlarik.

Laguntzak lortzeko, beharrezkoa izango da Jabekideen Komunitateak kontratatuta-ko enpresak programari buruz egin beharreko aldizkako txostenak Surbisaren esku ere egotea.

Termiten aurkako baterako tratamendurako programak kaltetutako komunitateen aho bateko adostasuna behar duenez, multzo horretako komunitateren bat gehiengoak adostutako jarduketaren aurka egongo balitz, ados ez dagoen komunitateak ezingo du birgaitzeko laguntzarik jaso bost urteko epean.

Penalizazio hori bera aplikatzekoa izango da Karkabetako baterako Jarduketa programetan, baldin-eta multzoko komunitateetako batek edo batzuek kaltetutako gehien-
goak adostutako jarduketari uko egingo balio.

Laugarrena.— Bereziki programaren laguntzak

Administrazio Kontseiluak 2005eko otsailaren 21eko saioan onetsitako Laguntza Programa berreskuratu du Surbisak. Horretarako, osoki finantzatu ahalko dira premiazko jarduketa txikiak jabetzaren ordeiz lan eta kostu handikoak ez diren konponketak egingo dira, hau da, higiezinaren narriadura fisikoa ekar dezaketen eta alarma soziala eragin dezaketen hirugarrengoei eginiko kalteak konponduko lirateke horrela.

Programa honetako jarduketak onesteko, gizarte langileak eta jarduketa proposatzen deneko ardura duen teknikariak batera egin beharko dute eskaria, eta inola ere ez da proposatuko urteko 3.000,00€ baino gehiagoko jarduketarik.

Laguntza hauen onuraduna jarduketa burutzen deneko etxebizitzaren jabea den pertsona fisikoa nahiz bertan bizi den pertsona edo atxikitako etxebizitzari dagokion Jabekideen Komunitatea izan daiteke.

Bostgarrena.— Laguntzen aplikagarritasuna Bilboko 2. barrutian

Surbisak Arabella, Zurbaran, Uribarri eta Matiko auzoetan esku-hartzen du, eta Oinarri hauen aplikazioa bereizten da honako irismen honekin:

- Eranskinean jasotako Arabella eta Zurbaran auzoetako eraikinei Oinarri hauen aplikazio arrunta egokitu ahalko zaie.
- Uribarri eta Matiko auzoetako Degradatutako Eremuaren mugartean sartuta dauden eraikinei Oinarri hauen aplikazio arrunta egokitu ahalko zaie.
- Uribarri eta Matiko auzoetako gainerako eraikinek, baldin-eta euren kokapena bat badator errolda atal zaurgarritzat hartutakoren batekin, eta Eranskinean jasota badaude, Oinarri hauetan araututako 0 lerroko laguntza eskatu eta lor dezakete soilik; ezingo zaie beste laguntza lerrorik aplikatu ez eta Xedapen Gehigarrietan jasotako laguntza berezirik ere.
- Bilboko 2. barrutiko gainerako eraikinak ez dira oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen xede izango.

Seigarrena.— Belaunaldi arteko Programa

Etxebizitzak birgaitzeko oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak aitortuko zaizkie 60 urtetik gora izan eta etxebizitzaren jabeak diren adinekoei baldin-eta emantzipatzeko edota aldi baterako ostatua lortzeko zailtasuna duen eta 35 urtetik behera duen pertsona gazte batekin etxebizitza partekatzeke Belaunaldi arteko programan parte hartzen badute. Horiei oinarri hauek aplikatuko zaizkie, berezitasun hauek kontuan hartuta:

- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat ezarri da urtean 39.000 € arteko diru-sarrerara ponderatuak dituzten familientzat: aurrekontu babesgarriaren gainean % 35ekoa, etxebizitza errentariaren beharizanetara egokitzeke lanetarako, eta ez



zaio 2 eta 3 Lerroen onuradun izateko araudian ezarritako gutxieneko aurrekontu babesgarria eskatuko.

- Aurrekontu babesgarrian sartu ahalko dira etxean hartuko den gaztearen logelari konfort handiagoa emateko beharrezkotzat hartzen diren altzariak erosteko gastuak.

Zazpigarrena. — *Bat-batean sortu eta aurrekonturik gabe geratu diren egoerak*

Lehen auzialdian nahiz auzibidez errekurtsio bat baiesteagatik aurretik ukatutako laguntza onetsi edo handitu behar den balizkoetan, bere garaiko deialdian aplikatzekoak ziren oinarri eta baldintzak izango dira aplikatzekoak, eta deialdi berri baten kargura onetsiak izan ahalko dira gainera.

Zortzigarrena. — *Interes bereziko ezohiko jarduketa puntualak*

Baldin eta Administrazio Kontseiluak berariaz onartzen badu hirigintza-jarduketa batek jabeen erkidegoen ohiko eta hobekuntza-jarduketak gaintitzen dituela eta, beraz, laguntza-arauak babes berezia merezi duela, aurreko xedapenetan aurreikusi gabeko laguntza bat jaso ahal izango da, Administrazio Kontseiluaren erabakian bertan zehazten diren baldintzetan, eta erabaki horrek jarduketaren salbuespenezkoa, interesa edo garrantzi berezia arrazoitu beharko du.

EDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo Xedapen Iragankorra. — *Onesteko dauden espedienteak*

Oinarri hauek argitaratu aurretik aurkeztutako eskaerei, baldin-eta onesteko zain badaude, eskaera aurkeztu zen urteari dagokion araudia aplikatuko zaie; hala ere, diruz laguntzekoa den obrak amaituta egon beharko du 2026ko abenduaren 31 baino lehen. Epe hori agortuta, une horretan indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

Bigarren Xedapen Iragankorra. — *Olabeagako Degradatutako Eremua*

Olabeagako Degradatutako Eremuko eraikin, etxebizitza eta lokalek Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira Surbisaren gainerako eremuetako baldintza eta betekizun berberekin, baldin-eta babestekoa den jarduketaren Obra lizentzia 2024.12.31 baino lehenagokoa bada eta egikaritzea 2025.12.31 baino lehen amaitzen bada, nahiz eta onespina eta ordainketa 2026an burutu daitekeen.

Hirugarren Xedapen Iragankorra. — *Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bihur daitezkeen maileguak*

Oinarri hauen indarraldian sortuz joan diren eta 15 urte igarota itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bihur daitezkeen maileguak euren muga-egunean indarrean den deialdiaren kargura onetsiko dira.

Bilbon, 2025eko azaroaren 17an. — Surbisako presidentea, Jon Bilbao Urquijo

**ERANSKINA****Zurbaran eta Arabella auzoetako eraikinak, oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan daitezkeenak**

Begoñako Andramaria, Auzoa (1etik 27ra)

Iturriondo, Plaza (1etik 3ra)

Landetabidea, Bidea (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 14, 14bis, 16, 18, 20, 22, 24, 26)

Remar, Multzoa (1etik 8ra)

Sarrikue, Auzunea (1etik 14ra)

Lezamako Trenbide Zaharra, Bidea (38, 46, 48, 50, 52, 54)

Zumaia, kalea (31, 33, 33A, 35, 37)

Zurbaranbarri, Auzoa (4, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30A, 30B, 30C, 30D, 30E, 31, 32, 32bis, 33, 34, 35, 35bis, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 44bis, 45, 45bis, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 63)

Zurbaranbidea, Bidea (1, 9, 11)

Uribarri Matikoko Errolda Atal zaugarriak

— 4802002005

— 4802002006

— 4802002019

— 4802002020

— 4802002021

— 4802002022

— 4802002023

— 4802002028

— 4802002029